

MULTINAZIONAL AURKA ELKARTZEKO GARAIA DA

Wal-Mart-en atzetik, Carrefour munduko bigarren banaketa taldea bihurtu zen, 1999. urtean, Promodesekin batu zenean (Carrefour lehen banaketa taldea da Europa osoan, baita Brasilen eta Argentinan ere). Talde berriak 680 hipermerkatu, 2.600 supermerkatu, 3.200 beherapen denda eta 240.000 langile ditu, gaur egun, 26 herrialdetan sakabanatuta. Fusioaren ondorioz, Carrefourrek 54.000 milioi euroko fakturazioa eta 1.000 milioi euroko etekinak izan zituen 1999. urtean, aurreko urteetako etekinak bikoiztuz.

Hala ere, zenbaki handi-mandi hauek alde ilun ugari ezkutitzen dituzte. Izan ere, horrelako fusioen ondorioz sortzen diren erakunde erraldoiek tokian tokiko ekonomiak suntsitzen dituzte, sarri askotan; baita herrialdeen oreka sozial, politiko eta ekonomikoak hankaz gora jarri ere.

Multinazionalen garapen bidean dauden herrialdeen esplotazioa, langabezi estrukturalak, naturaren narriadura, kalitate txarreko elikagaien ugaritzea, naturaren mekanismo eta lege guztien bortxa, behi eroek, kalitate txarreko oliba-pats olioek edo dioxinadun oilaskoek sortu dituzten bezalako osasun arazoak, anorexia, bulimia eta ortorexia bezalako gaixotasun psikologikoak eta kontsumitzaileen homogeneotasuna ekartzen dituzte.

Multinazionalen bultzatzen duten gizarte antolakuntzak lan-esku gutxiago behar du. Gasolina guk botatzen diegu autoari, barazkiak guk hartzen, pisatzen eta jartzen diegu

salneurria, eta, banka elektronikoaren bitartez, bankuarentzat lan egiten dugu soldatarik gabe. Gainera, gauzak okertzen direnean, inolako arazorik gabe kaleratzen dituzte soldatapeko langileak. Hewlett-Packard-ek bere lehiakide Compaq Computer erosi zuen 2001. urtean, konputagailu pertsonalen (PC) alorrean lehenengo postua lortzeko helburuarekin. Fusioaren ondorioz sortu zen erraldoi informatikoak (biek batera merkatu kuotaren %19 kontrolatzea lortu zuten) egin zuen lehen gauza zera izan zen: 15.000 lanpostu murriztuko zituela iragarri.

Modu konpultziboan eroatera bultzatzen gaituzten toki, modu eta produktu berriak sortzeaz gain; CNN, Disney edo Microsoft bezalako talde ekonomiko indartsuek kontsumo eredu berberen arabera bizitzera bultzatzen gaituzte, herriek dituzten berezitasun eta identitateak desagertuz. Denborarekin, elikatzeko, elkarrekin harremanetan sartzeko, informazioa lortzeko eta, oro har, bizitzeko modu berberak izango ditugu mundu osoan.

Eragiten dituzten kalte ugariak doan ateratzen zaizkie, gainera. Izan ere, ahal duten zerga gutxien ordaintzeko, paradisu fiskaletara eramaten dituzte etekinak, tokian tokiko ekonomiak ahulduz eta herrialdeak deskapitalizatuz.

Leon Walras-en (1874-1877) *laissez faire, laissez passer, le monde va de lui même* lege famatuaren izenean, gobernuen eta estatuen erabaki gaitasuna ahultzen dute, euren boterea indartuz eta hedatuz. Azken finean, eurek kontrolatuko duten *Mcdonald's* handi bat bihurtu nahi dute mundua.

John Gray-k dioen bezala, gure gizarteetan anarkokapitalismoa gailentzen ari da. Hau da, estatuak eta gobernuak gizartearen ongizatearen aldeko estrategia ekonomikoak zehazteko, zein multinazional eta korporazio handien portaerak arautzeko gaitasuna galtzen ari direnez, kontrol argirik gabeko ekonomiak eta gero eta anabasa handiagoa duten gizarteak agertzen ari dira (langabezi estrukturala duten gizarteak, txiroen eta

etxerik gabekoen gero eta kopuru handiagoak, kriminalitate tasa izugarriak...). Eta egoera honen artiskuetariko bat da krisian sartuko diren gizarteak ugarituko direla (Argentinako kasua), eta sistema kapitalista bera ere zalantzan jarri daitekeela, gizarte klaseen borroken bidez edo erreakzio faxisten bidez. Gogoratu Le Penek Frantzia lortutako bozka kopurua, Fortuynek Holandan lortutako indarra eta Berlusconi eta Bossik Italian eta Joerg Haiderrek Austrian lortu duten boterea.

Esperantzarako leihorik badugu, hala eta guztiz ere. Multinazionalen gehiegikeriak gelditu dituzten zenbait ekimenen berri ere badugu, han eta hemen.

1995. urtean, Greenpeacek eta era askotako talde eta mugimendu ekologistek Shell konpainiak Atlantikoan petrolioa ateratzeko zuen plataforma ondoratzeko asmoa gelditu zuten, bere gasolindegietan erostearen aurkako kanpainari esker.

Mugarik Gabeko Medikuek hiesa-ren aurkako botiken inguruko patenteen legea hautsi zuten Hego Afrikan. Hego Afrikako Gobernuak auzi bat irabazi zien botika konpainiei 2001. urtean, eta hiesaren kontrako botika merkeak eskuratzeko bidea zabaldu zuen. Gobernuaren patenteen legeak ez zuten horretarako aukerarik ematen, ordea, eta Mugarik Gabeko Medikuek lege hori haustea, eta hiesa dutenen artean gaitzaren aurkako botika merkeak zabaltzen hastea erabaki zuten 2002. urteko urtarrilean.

Hiesaz kutsatutako lagun gehien bizi diren herrialdea da Hegoafrika. Guztira, 5 milioi inguru daude gaitzak kutsatuta, populazioaren % 11 inguru. Hiesak milaka herritarren bizia arriskuan jarri ez ezik, Hegoafrikako ekonomia bera ere kolokan jartzen du. Urte gutxiren buruan, hiesak 600.000 umezurtz utzi ditu.

TAC, Gaixoen Hiesaren Kontrako Mugimenduak, desobedienciazko deia egin zuen, Gobernuak botikak doan banatzeko eskatzeko. Eta egindako presioak eragina izan du.

Izan ere, 2003ko abuztuan, hiesaren kontrako botikak doan banatuko zituela esan zuen Hegoafrikako gobernuak. Herritarren protestek eta nazioarteko presioek hiesaren kontrako politika aldatzera behartu zuten Thabo Mbeki presidentearen gobernuak.

Nestle, Coca Cola eta Pepsi bezalako multinazionalak diru asko irabazten dute akuiferoak eta iturriak pribatizatzen eta botilako ura saltzen. Toki askotako nekazariak urarekin estu badabilta ere, ura negozio borobila da multinazional batzuentzat. Nestle, adibidez, munduko ur botilaratzaile handiena da, herrialde askotan 73 markatik gora dituelarik.

Hala eta guztiz, urak legez kontra ustiatzen ari dela-eta, Nestleren kontrako auzia abiarazi zuten Uraren Aldeko Ekintzaileek Suitzan, eta irabazi egin dute. Alegia, Ura 'bestereganganaezina eta merkaturaezina' dela jaso du legeak Suitzan. Legeak arrazoi eman die, hala, Bevaix (Suitza) hiriko iturri baten pribatizazioaren kontra agertu diren herritarrei eta mundu mailako hainbat erakunderi.

Adibide hauek guztiek zera erakusten digute: kontsumitzaileak, elkartasun elkarteak, talde ekologistak eta multinazionalen boterearengandik aparte beste mundu mota bat eraiki nahi duten presio taldeak behar bezala koordinatzen eta antolatzen badira, multinazionaleri aurre egitea posible dela. Ondo pentsatutako estrategien bidez, Carrefourrek, Hewlett-Packardek, Shellek edo Nestlek onartu egin beharko dute herritarrok ez dugula ekoiztu gura lurak eta itsasoak eskaintzen duena baino gehiago, garapen bidean dauden herrialdeen esplotazio bortitza gelditu egin behar dela, herrien berezitasun eta identitateak babestu egin behar direla, eta munduaren egonkortasun ekonomiko eta politikoarekin ezin dela jolastu.

Hala ere, estrategia eta sigla ezberdinak dituzten erakundeekin aurkitzen gara, presio eraginkorrik egiteko, eta multinazionalen boterea handiegia da sakabanatuta lan egiteko.

Honela, bada, behar-beharrezkoa da arlo honetan lanean ari diren erakunde eta elkarte guztien sare eraginkorra sortzea. Zentzu honetan, globalizazioaren aurkako mugimendua lan-esparru edota elkargune egokia izan daiteke gaur egun sakabanututa dabilzan taldeak elkartzeko eta multinazionalen gehiegikeriei aurre egiteko. Hori, edo gureak egin du.

Patxi Juaristi